

DÍA DE LA DIÁSPORA VASCA.

Ispaster, 2019ko irailaren 8a.

Sailburuok, Ispaster-eko Alkatea, Herri Agintari eta Ordezkariorok, Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia, munduko euskal komunitatearen lagunok, egunon.

Ongi etorri eta eskerrik asko gurekin izateagatik.

Bigarren urtez, Euskal Diasporaren Nazioarteko Eguna ospatzen dugu. Gure historia, kultura, nortasuna gogoratzeko eta indartzeko Eguna da.

“Abanguardia maite duen aintzinako Herria” gara eta beti bizi izan gara munduari begira.

Duela 500 urte Magallanes-ek lur osoari lehen bira emateko itxaso bidaia hasi zuen. Hiru urte geroago Elkanok osatu zuen berebiziko abentura hura.

Elkanok, egun ezagutzen dugun mundu globalaren bidea irekin zuen. Euskaldunok aitzindariak izan ginen eta bide horri jarraipena eman behar diogu.

El Pueblo Vasco tiene sus raíces a ambos lados de los Pirineos, pero también se ha asentado e integrado en comunidades a lo largo y ancho de los cinco continentes.

Desde siempre hemos mirado al exterior por distintos motivos: necesidad económica, exilio, formación, religión o aventura. En ocasiones por elección, en otras por obligación.

Hoy Euskadi sigue saliendo al exterior, aunque los destinos y las motivaciones son diferentes. Las nuevas tecnologías de la información y los avances en el transporte facilitan la movilidad y la conectividad. Vivimos en red.

Lo importante, y este Día lo demuestra, es que la diáspora vasca del siglo XXI ha mantenido las raíces y la relación con Euskadi. Nuestro objetivo, cada 8 de septiembre, es mostrar al mundo la realidad de este Pueblo migrante que ha sabido integrarse en las sociedades de acogida y mantener el vínculo con “Ama lurra.”

Este logro se debe a una Diáspora Vasca viva y activa.

Munduko 25 herrialde ezberdinetan 193 euskal etxez osatutako sarea daukagu. Gehienak Ameriketan, baina geroz eta gehiago European ere.

Guztira 36.000 kide dauzkagu sare horretan. Pertsona aktiboak eta eraginkorrak, euskaldunen izen ona jorratzen dutenek. Beraien herrian integratuta eta gure herriarekin konpromisoa mantentzen dutenak.

Kanpoan zaudeten euskaldunok gure arbasoen lekukoak zarete eta gure herriaren orainaren igorleak. Zuen lanari esker Euskadi eta euskaldunon izen ona munduan zehar zabaldu da.

Euskal Diaspora Sare sendoa eta eraginkorra da. Sare sustraitua eta Euskadi-rekin zubigintza egiten duena. Xede bat partekatzen duen sarea: Euskadi Basque Country-ren izena eta izana mundu zabalean indartzea.

Somos un Pueblo migrante y conocemos las dificultades iniciales de integración en los nuevos países. En América se utilizaba el término despectivo “Black Bascos”, pero aquellas personas no tardaron en dar la vuelta a la situación; demostrando, con sacrificio y trabajo, su capacidad de integración en una nueva comunidad.

Es importante tener presente esta realidad histórica cuando ahora nos toca recibir a personas migrantes que buscan un nuevo futuro en nuestro Pueblo. Fuimos acogidos, debemos acoger. Debemos abrir los brazos de Europa y de Euskadi a personas que, sin duda, van a participar en el futuro de nuestro País.

Europa debe cambiar de raíz y aprobar una política común para acoger a las personas que buscan refugio y un nuevo futuro en nuestra tierra. Este ha sido el objetivo de nuestra reciente visita a la Santa Sede. Nos corresponde asumir la responsabilidad y construir un compromiso compartido para responder a la realidad de las personas refugiadas y migrantes que se encuentran en situación de gran vulnerabilidad ante las puertas de la casa común europea. No podemos mirar para otro lado como sociedad.

¿Qué habría sido de nuestra Diáspora si hubiéramos sido rechazados en los países de destino? No estaríamos celebrando con orgullo este Día de la Diáspora Vasca.

Este Día quiere contribuir también a entender y aceptar mejor los movimientos migratorios que se están produciendo en nuestro entorno.

Hoy nos encontramos en Ispaster. Pueblo acogido y acogedor.

Gracias por vuestra implicación en este Día y por compartir parte de vuestra historia que hoy convertimos en universal. Esta experiencia contribuirá a que en lo sucesivo otros municipios vascos ahonden en su historia migrante.

Gracias también a todas las personas que están celebrando este mismo Día con actividades organizadas en 16 países de todo el mundo.

Hoy tenemos un recuerdo muy especial al cumplirse 80 años de la salida del paquebote “Habana” con las y los primeros refugiados vascos a Venezuela. Este País de acogida hoy se encuentra en serias dificultades, pero sigue manteniendo viva la llama de aquellos exiliados vascos.

Gure Diaspora anitza bada ere, euskal etxeetako bazkide guztiek bizi dute euren euskalduntasuna harrotasunez.

Bai erbesteratu diren euskaldunek, baita erbesteratu zirenen oinordekoek euskal kultura eta izaerarekiko atxikimendua eta maitasuna erakusten dute egunerokoan.

Horregatik gure esker ona helarazi nahi diegu denoi Euskal Diasporaren Egun honetan.

Aurten urte berezia da. Urrian Euskal Gizataldeen zazpigarren mundu biltzarra ospatuko dugu “saregintzan” lelo pean. Hori da gure xedea: mundu osoko euskaldunen arteko sarea zabaltzen, ehuntzen eta indartzen jarraitzea.

Los días 2, 3 y 4 de octubre se celebra en Bilbao el VII Congreso Mundial de Colectividades Vascas en el Exterior. El lema elegido es “Saregintzan” y el objetivo analizar y avanzar en esa red de Centros vascos que se ha ido tejiendo desde el siglo XIX y que tenemos que seguir adecuando a la realidad de la nueva Diáspora del siglo XXI.

Bukatzer a noa.

Gaur, agerian uzten dugu, Euskadin eta kanpoko euskal komunitatean, diasporaren balioa.

Euskadi migrazioen lurraldea izaten jarraitzen du. Ez bakarrik iristen ari zaizkigun etorkinei erreparatuta. Atzerrirako bidea hartzen duten euskaldunei erreparatuta ere.

Diasporaren Egunaren bitartez, energia berria gaineratuko diogu mundu osoan zabaldutako euskaldunen izana eta izenari.

Vascas y vascos del exterior merecéis todo nuestro reconocimiento. Habéis sabido mantener nuestra cultura, las tradiciones y el idioma de generación en generación a miles de kilómetros de Euskadi.

Nos habéis demostrado que “no importa donde vivas, no importa lo lejos que estés; si vives Euskadi, Euskadi vive en ti”.

Diasporaren Eguna erronka ere bada, euskal izaeraren garra munduan piztuta edukitzea baitagokigu.

Elkarrekin bizi dugun sentimendua, kausa berarekiko grina, konpromisoa pizten digu.

Gaur Diasporaren Eguna da eta harro gaude kanpoan bizi den gure euskal familia handiaz.

Hemen gaudenok eta munduan zehar Egun hau ospatzen ari direnek jatorri berdina dugu. Bat gara eta bat izaten jarraitu nahi dugu. Atzo, gaur eta bihar: “abangoardia maite duen aintzinako herria” da gurea.

Eskerrik asko eta Egun ona izan!